

Inauterietan Elur-Txori elkarteak eta Kaldereroak omenduko dituzte aurten, bihar Udaletxean

■ Omenaldia bihar 15:30etan izango da, inauteriak hasteko ekitaldi ofizialaren barruan ■ Ekitaldi hori ikastetxeetako umeek egiten dute txandaka, eta Urumeako ikasleek egingo dute.

INAUTERIAK bihar hasiko dira Hernanin eta era ezberdinetako ekitaldiak izango dira astearte bitartean. Inauteriak hasteko ekitaldi ofizialean jai horiekin lotutako talde edo elkarteren bat omentzen da urtero. Aurten, Elur-Txori elkarteak omenduko da, hainbeste urtetan kaldereroak antolatu izanagatik. Hungariako Kaldereroak izaten dira urtero Inauteriak badatozela jakinaren gainean jartzen gaituztenak, eta Hernanin jende asko biltzen duen ekitaldi ederra izaten da.

Omenaldia Udaletxean egingo da eta han izango dira Mikel Armendariz Elur-Txoriko lehendakaria eta Alfaro Lorán Kaldereroen gaia daramakiena. Azken urteotan, Inauterietako hasiera ofiziala ikastetxeetako umeek moldatzen dute txandan-txandan, eta aurten Urumea Ikastolako umeak arituko dira lan horretan. Ekitaldian hor izango dira erraldoi eta buruhandien konpartsa eta Uru-meako txaranga ere.

Egitarau zabala

Bihartik sardina erre arte Inauteriak ospatzeko ekitaldi asko dago antolatuta. Bihar bertan, 17:00etan *Enetz* taldea arituko da Plaza Berrian.

Larunbatean Axeri dantza eta gazteentzako mozorro txapelketa egingo dira Inauterietako protagonista. Baina, badira ekitaldi gehiago: larunbat goizean txaranga, zezenak, eta Kriskitina dantza taldea arituko dira giroa jartzen. Arratsaldean pelota partiduak kiroldegian: 22 Urtez Azpiko txapelketako finala, 16:00etan. Erroizenea-Arruti/Lasa-Zabala.

Igandean, urtero, konpartsak izaten dira protagonista nagusi: Langilek, Aurrerak, Ttarlak, Inmaculadak eta Elizatxok aterako dituzte aurten konpartsak. Arratsaldean musika izango da Plaza Berrian eta kaleetan barrena. Astelehenerako ere egun osoko ekitaldiak daude, batez ere, umei begira. Asteartean, Sardina erre eta hor bukatuko dira Inauteriak. □



Inauteriak hasteko ekitaldian umeak dira protagonista.

Udaletxeak Gobernu Batzordea gaur

UDALAK Gobernu Batzordea egingo du gaur, 08:30etan eta 5 puntuko gai-ordena du. Puntueta-bat Nere Bordako obrari zuzendaritza jartzea izango da. □

'Kantaitan' parte hartzeko bilera bihar

AZKEN bi San Joanetan *Kantaita* taldeak ikuskizuna egin izan du eta hurrengo antolatzeko bilera martxan dira. Horretarako, bihar, ostirala, bilera egingo dute Biterin, arratsaldeko 20:00etan. *Kantaita* kantuan egiten zen konjuro kantu bat da garai batean udarako solstizioan su inguruan egiten zena, uzta ona izateko. *Kantaita* taldeak Kronikari adierazi dionez, 15 urtetik gorako jendea behar da eta *Kantaitak* bilera joateko deia egin du. □

3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa gaur

HIRULAUDEN Plataformak kontzentrazioa egingo du gaur Plaza Berrian 19:00etan, zigorraren hiru laurdenak bete dituzten preso-en askatasuna eskatzeko. □

HERNANI INSTITUTUA

Hitzaldia gaur Kalitate Legeari buruz

LONTXO Oiartzabal EAEko Eskola Kontseiluko Lehendakariak hitzaldia emango du PPko gobernua martxan jarri nahi duen *Kalitate Lege* berriari buruz. Hitzaldia, Biterin da 18:30etan, eta Institutuak antolatuta da Hezkuntza eta Kalitateari buruzko hitzaldi zikloaren barruan.

Olio biltzea gaur

HILEKO azken ostegunero bezala, erabilitako olio bilduko du gaur San Markosek. Urbietan, 16:00etatik 19:30etara. □



Erroizenea ereñotzuarra eta Arruti usurbildarra txapelketa ona egiten ari dira.

PELOTA

22 Urtez Azpiko finala larunbatean

ERROIZENEA-Arruti eta Lasa-Zabala pelotariak 22 Urtez Azpiko Txapelketako finala jokatu dute larunbat arratsaldean, kiroldegiko frontoian. Txapelketan kategori horretako pelotari onenak atera dira, eta hernaniarrek oso lan ona egin dute. Semifinaletan 4 bikoteetatik hirutan herritarrek zeuden (Zabala, Alvarez eta Erroizenea bera), nahiz eta gero, finalera ereñotzuarra bakarrik iritsi, Arruti usurbildarra atzelari duela. Finalean hiru partidu izango dira eta jaialdia arratsaldeko 16:00etan hasiko da. □

Hernaniko
Kronika

Interneten
www.dobera.com

ZINGI-ZANGA

Jatetxea
Eguneko menuak.
Ostiral eta
larunbatetan afariak
ematen ditugu.
Florida 54
Tel: 943 33 03 97

OIALUME ZAR
SAGARDOTEGIA



Asteartetik
larunbatera
zabalik.
943 55 29 38
OIALUME AUZO

SAGARDOTEGIA tolare
IPARRAGIRRE

HERNANIKO
SAGARDOA

OSINAGA AUZO
943 55 03 28

Asteazkenetik
larunbatera
zabalik.
Larunbat
eguerdian
enkarguz.
Tel. 943 55 03 28

FRONTOIA

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

1. partidua: Juraristi - Gaztelu / Iturralde - Lander
2. partidua: Ezkurra - Etxabe / Bitoria - Iñigo - Eizagirre
3. partidua: Altuna I - Iriarte / Elizalde - Lizaso
4. partidua: Sarasua - Etxeberria II / Iribarren - Urko

PELLO ZUBIRIAK ZAZPI EGUN INKOMUNIKATUTA

Malores Etxeberria: "Pello ondo dagoela esan digute baina dagoeneko ez dut ezer sinesten"

■ Zubiriaren emazteak dio benetan zer gertatu den ez dakitela, ez Zubiria nola ingresatu zuten, ez noiz ingresatu zuten ■ Inkomunikazio judiziala gaur bukatuko da Zubiriarentzat.

EGUNKARIAREN kontrako operazioa dela-eta, Pello Zubiria Egunkariako lehenengo zuzendaria ospitalean dago inkomunikatuta. Malores Etxeberria emazteak Madrildik Kronikari jakinarazi dionez ez dakite seguru zein egoeratan dagoen Zubiria, nahiz eta medikuek ondo dagoela esan: "Pello ondo dagoela esan digu medikuak, baina, nik nire zalantzak dauzkat, eta kanpora irtendakoek torturatu dituztela salatu ondoren oraindik eta gehiago". Etxeberria dio ez dakitela seguru noiz ingresatu zuten Zubiria, eta zergatik eta nola ere ez: "Pello hiru ordutan eduki zuten etxean, gero Argiara eraman zuten eta Madrileko bidaiaria egin behar izan zuen, dagoen moduan egonda. Gainera, inkomunikazio zeldan izugarriko hotza egi-ten zuela esan dute eta hori

Pelloren gaitza duen batentzat izan litekeen txarrena da. Pentsatu nahi dut ez dutela torturatu baina auskalo, eta gainera ez dakit Guardia Zibilari emandako botikak eman dizkioten ere. Orain badirudi ondo dagoela, baina, zenbait unetan bizirik ote dagoen ere zalantzak izan ditut".

"Komunikabidetatik enteratu gara"

Etxeberriak atxilotuen familiar- teko eta lagunei emandako tra- tua ere salatu du: "inongo infor- mazioz ez emateaz gain, poli- zia segika izan dugu eta bidali egin gaitu bai Audentzia Nazional aurretik eta baita in- gurutik ere. Zenbait gauza ko- munikabideen bitartez jakin ditugu, Pello ospitalean zegoela adibidez". Inkomunikazio ju- diziala bihar bukatzen da, baina, Malores Etxeberriak



Malores Etxeberria.

esan du arrastorik ez daukatela juezak zein pauso emango dituen.

Kontzentrazioak

Atzo kontzentrazioak izan ziren Euskal Herriko hainbat Uda- letxe aurretan Egunkariaren kontrako operazioa eta atxilo- tuen inguruan gertatu den guz- tia salatzeke. □

FUTBOLA



Hernaniarrek exhibizio ederra eman zuten igandean. Gaur beste giro bat izango da.

Hernani-Eibar gaur Zubipen

■ Hernanik eta Eibarrek lagunarteko partidua jokatu dute, gaur, 18:00etan.

URTERO jokatzen dute lagun arteko partidua Hernanik eta Eibarrek Zubipen eta sagardo- tegian afaria egiteko ohitura ere hartu dute, aitzakia horretan. Gaur 18:00etan izango da lagu- narteko partidua.

Hernani eta Eibarko klub- en arteko harremana beti izan da ona. Horrelako juntantzak egi- teaz gain jokalariek ere joan izan dira klub batetik bestera.

Gaur ez dute partidu erraza etxeko jokalariek, baina, lehe-

ngo asteburuan eman zuten pa- lizak eta talde haundi baten kontra jokatzeak moral haun- dia emango die. Partidua Zu- bipen izango da, lehengo astea ezkerotik hondarra botata jokatzeke moduan baitago. □

HITZ BITAN



Mertxe Etxeberria eta Luis Lizundia prentsaurrean.

✓ KARDABERAZ JAIO ZELA 300 URTE

Kardaberaz bizitzari buruzko hitzaldia emango du gaur Patxi Altunak, Udalak eta Eus- kaltzaindiak antolatuta. Ongietorria Mertxe Etxeberria Al- kateak egingo du eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak egingo du agurra. Hitzaldia 19:00etan da Udaletxean.

✓ AGENDA 21

Profesional, industria eta sindikatuak gaur. *Agenda 21* Planaren barruan bilerak egiten ari dira Hernaniri buruzko estudioa azaltzeko. Gaur profesional elkarteak, industria eta sindi- katuen txanda izango da. Bilera arratsaldeko 19:00etan da, Biterin.

✓ URUMEA IKASTOLA

Anorexia, Bulimia eta gizentasunari buruz hitzaldia. Urumea ikastolak eta guraso elkarteak hitzaldia antolatu dute Ano- rexia, bulimia eta gizentasunari buruz. Guraso eta ikasleentzat da jardunaldia. Gurasoek mediku nutrizionista baten hitzaldia izango dute eta gaiaren inguruko eztabaida egingo dute. Une berean, ikasleek tailer bat dute psikopedagogo batek zuzendua elikadura egokiari buruz. Hitzaldia gaur da 14:30etatik 16:30etara Urumeak Elkanon duen zentruan. Urumeak dei egin du parte hartzera.

✓ IPUIAK

Beatriz Egizabal ipui kontari gaur Biterin. Umeentzako ipui kontaketa dira gaur, Udal Liburutegian, Be- atriz Egizabalen ahotik. Bi sesio izango dira: 3-4 urte arte- koentzat 17:30etan, eta 5-7 urte artekoentzat 18:00etan. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- ▶ Gauzez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933

IRAGARKI MERKEAK

Geologian lizentziatua den eta Gizarte Hezkuntzak ikasten ari den neska batek klase partikularrik ematen ditu. DBH eta BATXILERGO maila. Esperientzia: **943 33 53 15**

Neska bat behar da jabetze batean lana egiteko. Kotxea beharrezkoa. Deitu: **667 20 87 02** (Arratsaldeko 18:00etatik aurrera)

Komertziala behar da Donostialderako. Kotxea beharrezkoa. Deitu: **661 52 38 39**

Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AENAREN konbokatorea. Ezinbestekoa: Diplomatura edo lizentziatura. Ingelesa. ADOZ: **943 44 45 09**

AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantzitsuak. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

GUARDA FORESTALA. Euskal Herriko parke eta erreserba naturaletan lan egin ezazu. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbestekoa: Graduatua. ADOZ: **943 44 45 09**

TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun titulua lortu ezazu. ADOZ: **943 44 45 09**

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

UDALTZAIN bezala lan egin ezazu Udaletan. Datozen deialdietarako. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

Udal Liburutegietan AUXILIAR. Datozen deialdietarako. ADOZ: **943 444509**

BANKU eta AURREZKI KUTXAtarako auxiliarrak behar dira. Ezinbestekoa: B.U.P. Datozen deialdietarako. Presta zaitez: ADOZ: **943 44 45 09**

Txofer, elektrizista, kontserje, operario,... Udaletan lan egin ezazu. ADOZ: **943 444509**

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

deitu 943 30 35 55

deitu 943 30 35 54

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu

Egunero